



Gurean

berdintasuna




HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Saileko Berdintasunerako administrazio-unitatea
7. zbk. 2019 Azaroa



Indarkeria matxista nerabezeroan



INDARKERIA MATXISTA NERABEZAROAN: SEXISMOA, MAITASUNA ETA MASKULINITATE EREDUAK.

“Biztanleria osoak bere bizitzako ordu asko ematen ditu eskolan derrigorrez. Bere ikas-mahaietatik indarkeria inoiz erabiliko ez duten pertsonak pasatzen dira, baita haien gatazkak konpontzeko indarkeriaz baliatuko direnak eta indarkeriaren biktimak ere bai. Guztiek ikasgeletatik pasatu eta matematika, hizkuntza, literatura eta historia ikasi dituzte, baina ikasi al dute berdintasunean harremanak izaten? Inork hitz egin al die tratu txarren sintomei buruz? Mutikoei posesiboak ez izan eta indarkeriazko maskulinitatetik aldendutako gizonak izaten irakatsi al diete?”

Ikasgeletan jeloskortasuna ez dela maitasuna aipatu egiten da? Maitasun erromantikoaren topikoak aztertu eta zalantzan jarri al dira? Askotarikoa eta konplexua den sexualitatea izateko eskubideari buruz eztabaidatu da? Edo gutxienez ikasgeletan hori guztiaz hitz egin ez bada, inoiz esan al diete genero estereotipoak guztiz bidegabeko eta arbuigarriak direla eta gure askatasuna murrizten dutela?”

Nerabeen arteko indarkeria matxistaren salaketek etengabe egin dute gora azken hamarkadan. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datu kezkararren arabera 249 adingabeko epaituak izan ziren 2018an emakumeen aurkako indarkeriarengatik. Espainiako Estatistika Institutua (INE) erakundeak bere urteko txostenean indarkeria honen hazkundearen berri ematen du. Estatu Espainiarrean 677 adingabeko neskek babes agindua edo kautelazko neurriak jaso zituzten salaketa egin ondoren, hau izanik 2013tik izan den kopururik altuena.

Euskal Autonomia Erkidegoan salaketen kopurua altua da ere. Emakundeak aurkeztutako 2018ko datuen azterketan azaltzen den moduan indarkeria matxista pairatutako 4244 emakumeetatik 492 adingabekoak ziren, hau da % 11,6-a. Estatuko Fiskaltza Nagusiak bere azken oroitidazkiaren sexu-delituen %23,2-ko gorakadaz

ohartarazi du. Txosten horretan Fiskaltzak bereziki “kezkarria” deritzo gazteen arteko indarkeriari eta pornografiaren erabilerekin lotzen du, “non emakumeak gauza bihurtuta irudikatzen diren”. “Egoera honi hezkuntzaren esparrutik aurre egin behar zaio eta familiek eta erakundeek indarrak batu behar dituzte berdintasuna, begirunea eta diskriminazio-ezaren baloreak igortzeko” aholkatu du idazkiak.

Zer gertatzen ari da? Zer ari da jazotzen gazteek horren jarrera matxistak izateko? Gaur egun komunikabideak eta teknologiak nerabezeroaren aurrerapena eragiten ari dira, “neskato eta mutikoei adin helduagoei dagozkien eremu sinbolikoak kontsumitzen ari direlako” Asunción Bernárdez ikeritzailearen arabera.

“Gertatzen ari dena jendartean eskaintzen ari garen heziketaren ondorioa da” adierazi du Marian Moreno Llaneza hezikidetzan irakasle adituak, berriki Skolae programatik UNESCO saria jaso duena. “Neska txikiak etengabe hiper-sexualizatzen dituzte publizitatean eta komunikabideetan, baita filmeetan ere. Bilakaera korapilatsu baten aurrean gaude beraz, baina gaur egun borrokatzeko prestakuntza eta baliabide gehiagorekin harrapatzen gaituela esan beharra dago”, azpimarratu du.

Goiztiartasun horren ondorioz zenbait bizipen hastapena aurreko belaunaldietan baino goizago ematen da. Pornografiaren kotsumo hain goiztiarrak sexu indarkeria haunditu eta neska eta mutilen arteko harremanen mundu sinbolikoan berdintasun eza areagotu du. Mutilak nagusitasunezko eta indarkeriazko sexualitate batean pentsatzen ari diren bitartean, neskek betirako izango den bizitza proiektu batean pentsatzen dute, “zu gabe ez naiz ezer” dute buruan eta “elkarrekin mundua mugituko dugu”.

Talka eta adostasun eza erabatekoa da. Mundu paraleloetan bizi dira. Mutilak irudi

bortitzekin hezi dira, eta sexualitatean emakumeak haien plazerra asebetetzeko erabili eta botatzeko moduko objektuak diren ideia bereganatzen dute. Bestalde neska batzuek mutilek nahi dutenaren aurrean amore ematen dute, bestela ez dituztela maitatuko uste dutelako. Ondorioz, azkenean batere atsegingarriak ez diren eta desiratzen ez dituzten harreman sexualak dituzte” ohartarazi du Morenok.

Alor horretan zenbait ikerketa egin dira, haien artean Andaluziako Emakumearen Institutuaren “Voces tras los datos. Una mirada cualitativa a la violencia de género en adolescentes”. Lortutako datuetatik adin horietan gertatzen den indarkeria matxista batez ere hiru arrazoiengatik ematen dela ondorioztatu da. “sexismoan errotutako sozializazioa, maitasun erromantikoaren eredu kulturala eta gurea artean oraindik ohikoa den maskulinitate tradizionalaren eratzea.”

Emakume gazteen aurkako indarkeria aztertzen duten lan batzuek berariaz gogorarazten digute neskek zailtasunak izan ditzaketela indarkeria-egoera batean daudela konturatzeko. Hori ondorioztatzen da Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak 2017an egindako “Genero Berdintasuna Lehen Hezkuntzan eta DBH-N Euskadin” azterlanean. Ikerketa horren arabera “gizonen eta emakumeen artean berdintasuna dagoelako ustea zabaldua izateak nahasmendua sortzen die neskei; izan ere, neskek ez dituzte erasoak eta jokabideak identifikatzen, eta, ondorioz, ez dute beren burua defendatzen horien aurrean. Emakumeen aurkako indarkeria arbuizatzen duen gizarte batean bizi dira neska gazteak, eta, ondorioz, “beti arbuia-tu izan duten egoeraren baten protagonista direla ikusten badute, lotsa eta nahasmendu handiak bizi izaten dituzte”. Emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazio egoerak gaitzetsi egiten badira ere, gaitzespena nahiko abstraktua da, eta beste batzuei gertatzen zaienean agertzen da; izan ere,

ikerketa honetan adierazten den bezala “gazteek zailtasun handiak dituzte indarkeria adierazpenak hautemateko beren jokabideetan, bai berdinen arteko taldeetan, bai beren harreman afektiboetan”

Nola prebenitu indarkeria matxista ikasgeletan

Ikastetxeetan indarkeria matxistari aurre egiteko lehenengo urratsa berau ikusgai egitea da. “Berdintasuna lantzea eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzearen arteko erlazioa ikusten ez den bitartean ez gara ezer prebenitzeko gai izango. Nire ustez, irakasleen prestakuntzak ikasgeletan eman daitekeen berdintasunaren oinarria osatzen du. Errealitatearen aurrean irakasleei zer edo zer egiteko eskatu eta %90ak baietz esaten du, zerbait egin behar dela erantzuten du” adierazi du Llaneanak.

Alor horretan hezkuntza sistemak gabezia handiak dituela esan beharra dago. “Hezkidetzak ez da oraindik ikastetxeetako identitatearen ezaugarrietako bat. Banakako saialdi bikainak daude, baina ez dago hezkidetzat joenezakeen ikastetxe gehienagorik” gaitzetsi du Miguel Angel Arconada hezkidetzaren irakasle adituak. Arconadak duela gutxi Skolae programarengatik UNESCO saria jaso du ere bai.

Autonomia-erkidegoetan badira ikastetxeek baliatu ahal dituzten hezkidetzak pro-



gramak baina, Nafarroako Skolae programaren salbuespenarekin, parte-hartzea ez da derrigorrezkoa.

“Gizartean, lapurtzea edo ez lapurtzea borondatezko kontu bat dela esango balizute bezalakoa da hori. Hau da, lapurtzen baduzu ez zaizu ezer gertatuko, legea bete ez arren inor ez da zure bila etorriko. Nahi duenak lapur dezala eta nahi ez duenak ez. Hori da ikastetxeetan berdintasunarekin gertatzen ari dena. Berdintasunean hezitzerara behartzen gaituzten legeak badaude, eta hala, ere zure irakasle bizitza osoa pasatu ahal duzu hori egin gabe eta ez zaizu ezer gertatuko, legea bete ez arren”, adierazi du Morenok.

Hezkidetzaren egoera kritikoa da gaur egun. Izan ere “hezkidetzak Nazio Batu-

en milurtekoko helburuetan dagoen garai hauetan, genero ideologia eta doktrinamendua bezelako kontzeptu faltsuak sortu dituzte hezkidetzaren erabilera ikastetxeetan eragozteko. Hau da, berriro esaten da indarkeria matxista ez dela existitzen. Irakasleek bere iritzia azaldu behar dute, eta hezkidetzak aurrera egin dezan konprometitu” azpimarratu du Arconadak. “Ikasleak berdintasun ezean hezi ditugu baina ez da hala nahi dugulako, baizik eta baliabiderik ez daukagulako. Berdintasuna ikasgeletara eramateko gaitasuna emango digun prestakuntzaren beharra gero eta handiagoa da. Gaur egun irakasleek hezkidetzak beharrezkoa dela adierazten hasi dira. Azkenean hezkidetzak programak nahitaezko izan daitezzen presioa agian behetik etorriko da” bukatu du Morenok.

- Adin horietan gertatzen den indarkeria matxista batez ere hiru arrazoiengatik ematen da: ”sexismoan errotutako sozializazioa, maitasun erromantikoaren eredu kulturala eta gurea artean oraindik ohikoa den maskulinitate tradizionalaren eratzea.”

- “Ikasleak berdintasun ezean hezi ditugu baina ez da hala nahi dugulako baizik eta baliabiderik ez daukagulako”


Interesgarria / De Interés

LIBURUA



LA HISTORIA DE LOS BONOBOS CON GAFAS
Ellos comían, viajaban y se modernizaban mientras ellas recolectaban comida y criaban a la prole. Pero los bonobos no aceptaban que las bonobas también pudiesen aprender y evolucionar. El legado de las autoras e ilustradoras pioneras en la creación de álbumes sobre igualdad y coeducación, todavía vigente

LIBURUA



A LA CONQUISTA DEL CUERPO EŒQUIVOCADO
El relato más popular sobre la transexualidad ha señalado que nuestro malestar reside en nuestro cuerpo y la solución es transformarlo. Sin embargo, otras voces han querido impugnar ese relato con nuevas preguntas: ¿y si el origen de nuestro malestar no estuviera en nuestro cuerpo?, ¿seguiría estando en el cuerpo el remedio? .

BIDEOA



¿NO TE HA PASADO QUE...? - MICROMACHISMOŒ
Micromachismos cumple dos años. En estos 24 meses hemos recibido cientos de emails y tuits que nos han puesto sobre la pista de pequeños y grandes gestos que perpetúan la desigualdad. Nos han llegado en forma de experiencias personales, de anuncios sexistas, de ofertas de empleo discriminatorias...
[VIDEO](#)



Los próximos días 28 y 29 de noviembre se celebrarán en Vitoria-Gasteiz (Lakua. Sala Euskaldun Berria) y Donostia (Palacio Miramar. Pabellón del Príncipe 2) las jornadas Políticas de corresponsabilidad y cambio en los usos del tiempo. Retos de las Administraciones Públicas organizadas por el departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, enmarcadas dentro del Primer Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Administración General y OO.AA.

En estas jornadas contaremos con las ponencias de María Ángeles Durán (investigadora española especializada en el análisis

del trabajo no remunerado y su relación con la estructura social y económica) y Triggvy Hallstrom (Asesor experto en igualdad y sociólogo. Centro de Igualdad de Islandia).

El 28 de noviembre se celebrará una sesión de trabajo interno en Bilbao (Gran Vía 85. Sala B1). Para la asistencia a esta sesión de trabajo y formación interna será necesaria la recepción de la invitación.

3.000 emakume batu zituen Durangon ospatu zen 'Salda Badago' jardunaldi feministak

Jardunaldiek barikutik domekara iraun zuten eta etorkizunera begirako bost lan ildo eztabaidatu zituzten: dekolonitatea, bizitzak erdiguneratzeko agenda partekatua eta burujabetzak, gorputzak eta sexualitateak, indarkeriarik gabeko bizitzak eta mugimendu feministaren erraiak. Ondorengo urteetan, Euskal Herriko "herri eta hiriguneetara" hedatuko dute Durangon landutakoa.

Euskal Herriko eragileez gainera, Munduko beste hainbat txokotatik ere heldu ziren aktibista feministak: Kataluniatik, Galiziatik, Guatemalatik, Nikaraguatik, Berlindik, Londresetik eta Madriletik, besteak beste.



Fué un evento dividido en tres jornadas que tuvo lugar el 1, 2, y 3 de noviembre. Tres días en los que no faltaron detalle.

Para abrir boca y comenzar de la mejor manera posible el primer día contaron con Carmen Ruiz Repullo, doctora en Sociología por la Universidad Pablo de Olavide en Sevilla con la tesis titulada: «Los peldaños perversos del amor. El proceso de la violencia de género en la adolescencia» y profesora de Sociología de la por la misma universidad. Intervino con una ponencia titulada: «Nuestros cuerpos, vuestra frontera: violencias sexuales en la adolescencia». «Esta intervención fué dirigida a destacar que la violencia de género hay que llevarla a las aulas para cambiar la visión de la sexualidad en las aulas. La violencia de género es una cuestión principal. Las niñas tienen que entender el amor de otra manera», explicó Yolanda García, organizadora del Congreso.

Otra de las colaboradoras del evento fué la monologuista Pamela Palenciano. Esta mujer fue víctima de violencia de género y tuvo el coraje de afrontar la situación que vivió creando el monólogo «No solo duelen los golpes». En él cuenta su experiencia de una manera clara, detallada y humorística que, como mínimo, hace reflexionar a todo aquel que lo escucha. Lleva más de cuatro años relatando su historia por colegios, institutos, universidades y teatros con la única intención de que su experiencia sirva para que, lo que ella tuvo que vivir, se repita cada vez menos entre la gente joven. Quiere remover las conciencias de adolescentes a lo largo y ancho de la península hispánica. En este congreso de coeducación relató una nueva versión de su monólogo, el cual lleva representándolo un tiempo por cárceles, tanto de mujeres como de hombres, de todo el país.

¿SABIAS QUÉ?

El II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco

El II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato 2019-2023 plantea que los centros educativos, desarrollen acciones conjuntas y sistemáticas que incluyan los grandes pilares de la coeducación, porque con ello se estarían construyendo las bases igualitarias que constituirían una buena prevención de la violencia contra las mujeres.

- El pensamiento crítico ante el sexismo
- Uso no sexista del lenguaje y las imágenes
- Integración del saber de las mujeres y su contribución social e histórica
- Transformación pacífica de conflictos, con proyectos de convivencia coeducativa
- Autonomía personal e independencia económica
- Los espacios en el centro educativo y las actividades extraescolares y Complementarias
- Educación afectiva y sexual en igualdad
- Prevención y actuación ante la violencia contra las mujeres

MIGUEL ANGEL ARCONADA MELERO

HEZKIDETZA ETA INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOAN IRAKASLEA.



Miguel Angel Arconada Melero hezitzaileak hiru hamarkada eman ditu nerabezaroan izaten den indarkeria matxistaren prebentzioa irakasten. Alor horretan egin duen lana dela eta Nafarroako Gobernuak bultzatutako Skolae hezkuntza-programaren talde sustatzailean parte hartu du. Programa horretan egingadako lanagatik UNESCO-ren 2019-ko Emakume eta Nesken Heziketa saria jaso du. Sari hori jaso baino egun bi lehenago Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian azaldu behar izan zuen lekuko bezala programa horretako idazketan lankidea izan zuen Carmen Ruiz Repullorekin batera. Izan ere hezkuntza-programa hori gizartearen alderdi kontserbadorenek aurkeztutako auzi-eskeen aurrean defendatu behar izan zuten.

Hezkuntzaren mundutik kanpo, Palencia-ko "Codo a codo" berdintasunaren aldeko gizon-taldearen partaidea da Miguel Angel. Talde horretatik Burgos-eko Red de Hombres Igualitarios elkarte sortzen lagundu dute.

Indarkeria matxistarengatik zigortutako adingabekoen kopurua gero eta handiagoa da.

Bai epaitegietatik helzen diren datuak ikaragarriak dira. Epailak erabakitako adingabekoen urruntze-aginduen kopuruak gora egin du. Ez genuen horrelakorik espero, hein batean honako hau berdintasunezko hezkuntza jaso duen belaunaldi bat delako. Hala ere belaunaldi berrietan guztiz iraunkorra den indarkeria azaltzen ari da.

Zergatik gertatzen da hau zuen ustez?

Hezkuntza-sistematik egiten den lana ezinbestekoa da baina ez da nahikoa indarkeria matxista geldiarazteko.

Genero-sozializazioa eta emakumeen aurkako mezu diskriminatzaile eta sexistak indarrean dira gure jendartearen eta honek asimetria eta berdintasun eza zabaltzen ditu belaunaldi berrietan.

Eta ez hori bakarrik, genero indarkeriaren existentzia bera onartzen ez duen eta arazo horretan diru publikorekin lan egitearen aurkako den joera bat legitimatzen ari da gaur egungo arlo politikoan.

Zeintzuk dira indarkeria matxista adingabekoen artean agertzeko zergatiak?

Harreman afektibo eta sexualak gero eta goizago ematen dira eta heldutasun gutxiagorekin bizi dira, betidanik izan diren mezu sexisten eragin indartsu berdina jasotzen den bitartean.

Horri pornografiaren erabateko eskuragarritasuna gehitu behar zaio, eta askotan ikasleek jasotzen duten sexu heziketa bakarra hori izaten da. Pornografiaren kontsumoa 11 urterekin hasten da, batzuetan 9 urterekin. Adin horrekin, emakumeak gizonen desirarako eskuragai eta menpeko diren mezua heltzen zaie mutikoei.

Nola lantzen da indarkeria matxista mutikoekin?

Modu desberdin batez landu beharko genuke funtseko arrazoi batengatik: genero indarkeriaren prebentzioa mutilengan izan behar du eragin nagusia. Trebetasunez egin behar den lana da hori, mutikoak aurrereko belaunaldietako gizonen indarkeriaren errudun sentiarazi gabe.

Gaur egun mutiko batzuek ez dute indarkeria matxista legitimatzen eta indarkeria horren aurkako haien jarrerari buruz hausnartu eta haien jokabideei buruz autokritika egiteko gaitasuna eman behar diegu.

Zer dira berdintasunaren aldeko maskulinitateak?

Ez dago gizon izateko modu bakarra, aukera desberdinen artean aukeratu ahal dugu eta hori dela eta maskulinitateaz hitz egiten dugu. Maskulinitate hauek ez dira adierazpenen esparruan geratzen.

Arazo bat daukagu, zeren eta gizonok politikoki zuzenak izaten hasi gara gure aurrean emakumeak daudenean baina taldea gizonoz osatuta dagoenean komunikazioa mende terdi egiten du atzera. Niri mikroberdintasunen terminoa asko gustatzen zait. Berdintasunaren alde lanean ari garela adierazten duten elementu zehatzak dira. Zer egiten duzu zuk berdintasunaren alde?, adibidez zer egiten duzu zure bikotekidearen denbora zurea bezain garrantzitsua izan dadin?, edo zure bikotekidearen sexu inizatiba eta desira errespetatzeko?, edo bere lanbide-profila zurea bezainbeste gora egin dezan?, edo seme-alabak hazterakoan erantzunkide sentitu zaitetzten?, edo harremana afektiboki aberasteko?.....

Gauza zehatzak antzematen hasi behar dugu, eta gizonen esan behar diegu zein- tzuk diren berdintasunaren aldekoa izatea bihurtzen duten elementuak.

Nola lantzen dira berdintasunaren aldeko maskulinitateak nerabeekin?

Erabiltzen dugun metodologiak lau trebetasun jorratzen ditu: kontzientzia, autokritika, ezagutza eta konpromisoa. Mutikoak ohartu behar dira generoaren alorrean ez direla askatasunean hezituak izan, baldintzapeko askatasunean baizik.

Irakatsi dizkiegun maskulinitatearen elementuekiko autokritiko izatera bultzatu behar ditugu, emakumeen eguneroko bizitzaren aldean pribilegioak ekartzen dituzten elementuekiko.

Beste eredu batzuk erakutsi behar dizkiegu, hautatu ahal izateko moduko beste maskulinitate batzuk ezagutu ditzaten, XVI. mendetik aurrera berdintasunaren aldeko gizonen informazioa bilduta baitugu. Eta azkenik berdintasunaren aldeko gizonak izateko aukeratu dituzten jardueretan konpromisoak hartzen irakatsi behar diegu.